

IBILBIDEA 2
BERROIA

FITXA TEKNIKO


ZAILTASUN MAILA: ■ ZAILA

ABIAPUNTUA: Mendatako harrera-gunea, Eleihalde / Mendata (Bizkaia)

HELMUGA: Mendatako harrera-gunea, Eleihalde / Mendata (Bizkaia)

IBILBIDEA: Mendatako harrera-gunea, Albiz, Urrutxua, Mendigane, Berroia, Zelaietagana, Elosu, Ajangiz, Marmiz, Mendatako harrera-gunea

PROFIL


DISTANTZIA:

18,780 km

**METATUTAKO DESNIBEL
POSITIBOA:**

528 m

**GUTXI GORABEHERAKO
IRAUPENA:**

2:15

DESKRIBAPENA

Ibilbide zirkularra da, ez oso gogorra. Mendata eta Ajangiz udalerrietako auzoak lotzen dituzten basopistetan eta asfaltatutako errepide txikietan barrena igarotzen da. Ibilbidean zehar Albizko Jauregia, XVIII. mendekoa, Aristieta Jauregia, XVII. mendekoa, Menzeta dorrea eta antzinako burdinola eta erroten aztarnak nabarmentzen dira. Ajangizen GR-38arekin topo egingo dugu, Ardoaren eta Arrainaren Ibilbide deiturikoarekin, Arabako Errioxa Bermeoko portuarekin lotzen duenarekin.

Mendatako Eleihaldeko harrera-gunetik [km 0] irtengo gara eta, BI-3222 errepidean barrena, pixkanaka gora egingo dugu Urrutxua [km 4,90] udalerriraino, Albiz [km 3,2] herria bisitatu ondoren.

Urrutxuara iritsi orduko, eskuinaldean mendian gora doan zementuzko pista bat jaiotzen da. Metro batzuk aurrerago, pista hori pinudi arteko bide bihurtzen da.

Arreta jarri behar izango diegu hango bidegurutze eta adarrei, gu beti uren banalerroaren goreneko aldean ibiliko garen arren.

Jaitsiera zailaren ondoren, Berroia [km 7,60] auzo txikira helduko gara. Bertan, eskuinerantz biratuko gara berriz ere pistan sartzeko. Jaitsiera zail eta jarrairen ondoren, gurpil-arrastoek eta euri-garaian ur-isurketek baldintzatuta egoten baita, Elosu [km 10,30] ingurura iritsiko gara. Han berriz ere asfaltozko bide-zorua izango dugu.

Une oro ibilbidean zehar dauden marka horiei jarraituko diegu.

Errepidera iritsitakoan, aurrera jarraituko dugu Ajangiz udalerrri-bide asfaltatuetan barrena igarotzeko. Ajangiz [km 14,55] herrira iritsi ondoren, eskuinerantz joko dugu, betiere goranzko joerarekin, BI-3241 errepidean barrena Marmiz [km 16,45] herrira eta, azkenik, BI-3222 errepidean barrena, ibilbidearen abiapuntu izan dugun Eleihaldeko harrera-gunera [km 18,78] iristeko.

